

Erronkari buruzko fitxa

IHOBE

Nola **susta genezake erosketa kontratazio publiko berdearen irizpideak erabiltzea dagoen informazioa eta lotutako datuak (kontratazioak, adibideak, etab.) erraz bistaratzeko tresna baten bidez eta, hala, jasotako kontsulten-kopurua murrizteko?**

Azpi-erronkak:

- Nola ahalbidetu genezake dauden baliabideetarako sarbidea, erakundearen rola eta eskumena **bistaratzeko**?
- Nola **aprobetxa genitzake bilaketa-datuak**, haiei buruz ikasteko eta **zerbitzua** erabiltzaileen **interes arabera eskaintzeko**?
- Nola **lotu/txerta genezake** beste leku edo informazio-hobi batzuetan dagoen **informazioarekin**, balio-datuak hartuz?

Testuingurua:

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030en barruan Eusko Jaurlaritzak eta Ihebek erosketa eta kontratazio publikoaren arloan egiten duten lana erreferentziazkoa da estatuan eta Europan, Erosketa Publiko Berdea babesteko eta sustatzeko zerbitzua baita. Programak **lehentasunezko 5 jarduketa-eremu** identifikatzen ditu:

1. **Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea** Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa eta haren papera indartzea gisa euskal sektore publikoaren esparru politikoan eta judirikoan.
2. Euskal sektore publiko eta pribatuaren **erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea**, eta, horretarako, sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea, eta euskal enpresak sentsibilizatzea eta mugiaraztea.
3. **Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea erakundeetan**, eta, horretarako, ezarpen sistematiko eta estrategiko baterako baliabideak hornitzea eta prozesuan inplikaturako langile guztiengan profesionalizatzea.
4. **Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua**, eta horretarako, merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzak sustatzea eta enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egiteko.
5. **Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea**, eta, horretarako, aurrerapenak eta lorpenak jakinaraztea eta sustatzea barne-mailan zein Europa mailan eta nazioartean. Gaur egun, Programaren babespean **ingurumen-aholkularitza, prestakuntza eta ingurumen-irizpideak emateko**

zerbitzuak eskaintzen dira, toki-erakundeei, gobernu-sailei eta atxikitako beste erakunde publiko batzuei kontratazioan erosketa berdea txertatzen laguntzeko.

Erosketa berdearen arloan eskuragarri dagoen informazio guztia modu irisgarriagoan erakusteko asmoz, beharrezkoa iruditzen zaigu katalogo moduko web-atal baten bidez ematen den **informazio-zerbitzua digitalki eraldatzea, informazio hori modu arinagoan eta pertsonalizatuagoan eman ahal izateko**, erabiltzailearen eskarien edo lehentasunen arabera. Era berean, egindako kontsultei buruzko datuak ezagutu nahi ditugu, joerei aurrea hartu eta aukerak detektatzeko. Erosketa berdearen arloan dauden beste plataforma edo datu-base batzuekiko interkonexioa.

Helburuak:

Gutxienez helburu hauetakoren bat betetzen duten irtenbideak bilatzen ditugu:

- Erosketa berdeari buruz eskuragarri dagoen informazioa gaur egun baino modu eskuragarriagoan, eraginkorragoan eta interaktiboan erakustea.
- Ihobe.eus-en ekosistema digitalarekin (Drupal ingurunea...) bateragarria/txertagarria izatea.
- Informazioa erakustez gain, atzeraelikatzeke gai izatea (ikastea), erabiltzaileekiko interakziotik abiatuta (datuak), eta balio erantsia emateko gai izatea, beste plataforma batzuetan (adibidez, revascon) dauden informazioa edo lotutako elementuei buruzko erreferentziak gehituta.

Zeren bila gabilta?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Ihobe.eus-ekin bateragarria/txertagarria den irtenbidea izatea eta erraz eguneratzeko modukoa izatea. Garrantzitsua izango da Ihoberen eraldaketa digitalaren taldea eta komunikazio taldea tartean sartzea hasierako faseetatik.
- Erabiltzaileek erraz erabiltzeko sistema izatea eta Ihoberen kudeatzaileek barneko mailan erraz eguneratzeko modukoa izatea, bai alde teknikoa (informazio-iraulketa), bai alde digitala-komunikazioa (bilakaera).
- Datuen babesa eta operatibitatearen testuinguru publikoak izan dezakeen beste edozein muga betetzen duen irtenbidea izatea (segurtasunaren eskema nazionalaren pean).

Prozesua eta data gakoak:

Erronkan parte hartzeko, eman izena esteka honetan. [oraindik jaso gabe].

- Honako hau da proposamenaren erantzuna jasotzeko azken eguna: 2024/05/02ko 23:59.
- Finalerdira iritsi diren startupen berri 2024/05/10ean emango da.
- Startup finalisten berri 2024/05/24an emango da.
- Startup irabazlearen berri 2024/06/13an emango da.

Hautaketa-prozesuak 3 fase ditu:

1. **1. fasea:** finalerdikora iritsi direnek aurkezpena egingo diote sozietateari. Hiru startup finalista hautatuko dira. 2024ko maiatzaren 16tik 24ra izango da.
2. **2. fasea:** sozietateak elkarrizketa-txanda egingo du finalistekin. 2024ko maiatzaren 27an izango da.
3. **3. fasea:** sozietateak azken bilera egingo du finalistekin piloturako startup irabazlea hautatzeko. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, azelerazio-programan zehar.

Zer eskuratzen duzu?

Startup finalistak (3)

- Bi eguneko govtech **azelerazio-programa**. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, Bilbon, aurrez aurre.

Startup irabazlea

- **Irtenbidearen aurkezpena Demo Day de BIND GovTech 2024an**, Bilbon, aurrez aurre.
- **Ordaindutako pilotua**, gehienez 15.000 euro. Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko uztailean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.